



## **KOSTUAK**

Gure proiektua gauzatu baino lehen ezinbestekoa da gure kostuak zeintzuk eta zein motatakoak diren, hau da, aldakorrak ala finkoak, identifikatzea. Gure kostuak zein motatakoak izango diren jakiteko, lehenik eta behin ezinbestekoa izango da gure kostuak zeintzuk diren jakitea.

Alde batetik, kostu finkoak beti berdinak direnak dira, hots, gehiago zein gutxiago ekoiztuta beti berdina ordaindu behar direnak. Kostu aldakorrak aldiz, enpresaren jarduera-mailaren arabera edo ekoizpenaren arabera aldatuz doazten kostuak dira.

Gure enpresak izango dituen prezio finkoei dagokienez, langileen soldata eta, aurretik aipatu dugun bezala, guk alokatuko dugun almagaren alokairua izango dira nagusiak. Alde batetik, langileen soldata finkoa mantendu nahi dugu, bai seguritatearengatik eta bai konfiantzarengatik, hauek aldakorrak izanez gero, langileak haien soldata jeisteko arriskutan ikusi dezaketelako.

Horrez gain, nabarmena da soldata hauek, noski, langilearen arabera izango direla, hau da, langile guztiek ez dute berdina irabaziko, lanaren arabera irabazi altuago edo baxuagoak izango dituzte. Adibidez, monitoreak kontratatzerako orduan, kostuak ere aldakorrak izango dira, ekintzaren baitan kontratatuko baititugu, hortaz, monitoreek ez dute soldata finko bat izango, hau antolatzen duten ekintzaren arabera izango baita. Almagaren alokairua bestalde, finkoa izango dela aurreikusten dugu, gure eskutan ez dagoen zerbitzu baita.

Prezio aldakorrei dagokienez, janariaren prezioa adibidez, aldakorra izango da, izan ere, bezero kopuruaren arabera erosiko dugu janaria, eta horrez gain, menuaren arabera ere prezioa aldakorra izango dela aurreikusten dugu, izan ere, janari mota guztiek ez dute prezio bera.



ostiko bidaiari

Horregatik, prezioak desberdinak izango dira, eta horrez gain, ekintzen arabera ere prezioak aldatuko dira. Hau da, ekintza bereziak dauden egunetan prezioak altuagoak izango dira, ekintzik gabeko egunetan ordea, prezioak baxuagoak izango dira.

Garraioa ere aldakorra izango da, izan ere, aipagarria da esatea gure hotelek autobus zerbitzua ere eskaintzen dutela, hortaz, bezero kopuruaren arabera kostuak ere aldatuko dira. Gainera, beti ez da km kopuru bera egingo, gure hotelak ez daudelako denak leku berean kokatuta ezta gure bezeroak ere. Hau da, hainbat geltoki egongo dira haiek jaso eta hoteletara eramateko.

Argiari dagokionez, argia ere kostu aldakorra izango da hilabete desberdinetan eta zenbat eta jende gehiago izan, argi gehiago erabili beharko dugu eta prezioak ere gora egingo du. Argi dago udako hilabeteetan, neguko hilabeteetan baino kostu handiagoa izango dugula.

Gure diru-sarrerak eta kostuak argiago ikusteko, honako taula hauek prestatu ditugu. Hauetan, hotel bakoitzean lortuko duguna azaltzen da, baina prezio hauek ez dira berdin-berdinak izango, aurreikuspen bat baita.

#### **AURREKONTUA**

<u>DIRU-SARRERAK</u>	<u>PREZIOA</u>
Publizitatea	6.000€/hilabetean
Bezeroak	19.000€-26.700€/hilabetean
Harpidetza-prima	9.000€/hilabetean



ostiko bidaiari

<b><u>KOSTU FINKOAK</u></b>	<b><u>PREZIOA</u></b>
Biltegiaren alokairua	180€/hilabetean
Soldata (langileak)	Langilearen araberakoa
Garraio enpresa	2.500€/hilabetean
WiFi	60€/hilabetean
<b><u>KOSTU ALDAKORRAK:</u></b>	<b><u>PREZIOA</u></b>
Janaria	5.000-7.000€
Argia	6.500€

<b><u>LANGILE MOTA</u></b>	<b><u>SOLDATA</u></b>
Enpresaburuak	1.800€
Sukaldariak	1.300€
Monitorea	50€-80€/ekintza
Garbitzaileak	1.200€

<b><u>KOSTU MOTA</u></b>	<b><u>SOLDATA</u></b>
Langileak	4.370€
Beste kostuak	15.240€
<b>Totala</b>	<b>19.610€</b>

\*prezioak orientatiboak dira

Kostu guzti hauek kontuan hartuta, argi dago gure zerbitzuak aurrera egiteko langile eta baliabide ugari beharko dituela. Hala ere, baliabide guzti hauetan gastatuko dugun dirua ez gaitu kezkatzen, kalkulatzeko ditugun diru-sarrerak gastuak baino askoz handiagoak direlako, beraz, gure enpresak espero dugun bezala aurrera egiten badu, irabaziak lortuko ditugula ondoriozta dezakegu.